

Mikel eta bere gurasoak asteburu osoa pasatzera gonbidatu dituzte lagun batzuk. Helduak hitz eta pitz aritu dira arratsalde osoan eta umeak jolasean aritu dira etengabe. Iluntzean, Mikel goseak amorratzen dago eta deitu bezain pronto jartzen da mahaian, baina lehenengorako dakartena ikustean esaten du:

- Tripako minez nago!

• **Zergatik uste duzu esaten duela “tripako minez nago”?**

- A. Bat-batean ez delako ondo sentitzen.
- B. Ekarri diotena ez zaiolako gustatzen.
- C. Hainbeste jolasteak tripako mina jarri diolako.
- D. Jolasteko gogo handia duelako.
- E. Ekarri diotena asko gustatzen zaiolako.

• **Zein jatorduz ari dela uste duzu?**

- A. Bazkaria
- B. Askaria
- C. Afaria
- D. Gosaria
- E. Hamaiketakoa

• **Zer uste duzu dagoela lehenengorako?**

- A. Marrubiak ardotan
- B. Xerra patatekin
- C. Txokolatezko pastela
- D. Barazki purea
- E. Flana esnegainarekin